



9/2004 GOMENDIOA, APIRILAREN 19KOA, EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILARI EGINA, INTERESDUNARI JARRITAKO TRAFIKO ISUNAK BALIORIK GABE UTZ DITZAN.

Aurrekariak

1. Interesdunak trafiko arloko bi zigor-prozedurari buruzko kexa egin zuen. Antza denez, ez zuen prozedura horien berririk izan Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak honako hauek jakinarazi zizkion arte: alde batetik, PFEZren itzulketan kopuruak berdintzeko erabaki bat, eta, bestetik, premiamendu prozedura bat.

Herrizaingo Sailari informazioa eskatu ondoren, hark bi administrazio-espedienteen kopia bat igorri zigun.

2. Lehen espedientean (...) ikusten denez, (...) jauna 2000ko azaroaren 1ean salatu zuten, ibilgailua espaloian aparkatu zuelako. Behin bakarrik ahalegindu ziren salaketa hori interesdunari jakinarazten, baina alferrik, haren bizilekuan ez baitzegoen jakinarazpenaz ardura zitekeen inor. Inon ez da idatzita agertzen postariak postontzian ahalegin horren abisurik utzi zuenik. Gero (2001eko otsailaren 27an) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxean argitaratuz jakinarazi zen salaketa.

2001eko apirilaren 17an, Bizkaiko Trafikoko lurralde arduradunak interesdunari 90,15 euroko isuna jartzea erabaki zuen, eta erabaki hori interesdunaren bizilekuan jakinarazi zitzaion beste pertsona bati. Ez dakigu nor zen, ezta interesdunarekin zein harreman zuen ere, hark NAN zenbakia eta sinadura irakurgaitz bat baino ez baitzituen idatzi.

2001eko irailaren 6an, Finantzetako zuzendariak premiamendu probidentzia bat agindu zuen, eta zorra nahitaezko aldian kobratzeko, (...) jaunaren ondarearen kontra jarduteko agindu zuen.

Orduz geroztik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak premiamendu prozedura bat bideratu zuen, eta, azkenean, guztira 108,18 euro kompentsatuz bukatu zen prozedura.

3. Bigarren espedienteari dagokionez (...), salaketa 2002ko urtarrilaren 10ean egin zen, luzetarako marra hori etengabea zegoen toki batean aparkatzeagatik. Bi



bider saiatu ziren interesdunari salaketa jakinarazten: otsailaren 28an, 12:05ean, eta martxoaren 4an, 12:25ean, alferrik bietan, interesduna etxean ez zegoelako, eta ez batean ez bestean ez zen egiaztatu postontzian ahaleginaren abisurik utzi zenik. Horrela, salaketa ediktu bidez jakinarazi zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2002ko apirilaren 22an) eta udaletxeko iragarki-taulan.

2002ko ekainaren 6an, Bizkaiko Trafikoko lurralde arduradunak 90,15 euroko isuna jarri zion (...) jaunari. Interesdunari horren berri emateko ekainaren 10eko jakinarazpen-ahalegina ere alferrikakoa izan zen, postariak itzuli egin baitzuen komunikazioa, bizileku hartan pertsona hori ezagutzen ez zutelakoan. Horren gainean, zera adierazi beharra dago: data hori baino hiru hilabete lehenago (interesdunari salaketa bizileku horrexetan jakinarazi nahi izan zitzaionean), baita hilabete bat geroago ere (prozedura honekin zerikusirik ez duen beste jakinarazpen pertsonal bat egitean), postariak adierazi zuen interesduna ez zegoela, baina ez zela ezezaguna; horixe bera berretsi du Posta eta Telegrafoen Ustiapen Zerbitzuko buruak -Trafiko zuzendariaren eskariz- prestatu zuen txosten batek, non adierazten baita interesdunak posta-helbide horretan daukala finkatuta bizilekua, nahiz eta orain ez den han bizi.

2002ko uztailaren 5ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko ediktu-taulan argitaratu zen zigor-erabakia.

Finantza zuzendariaren 2003ko martxoaren 13ko probidentziaren bidez, premiamendu prozeduraren izapideak hasi ziren, eta, horren ondorioz, oraintsu 108,18 euroko kopurua bahitu da.

4. Agiri horiek guztiak aztertu eta gero, ondorio hau atera genuen: bi espediente horietan, jakinarazpen zehatz batzuk egitean, hainbat irregulartasun burutu zirela, eta ez zirela bete aplikatu beharreko araudian ezarrita dauden xedapenak.

Horixe adierazi genion Herrizaingo Sailari, eta hura, bere erantzunean, berriro lehengo azalpen bera ematera mugatu zen, alegia, jakinarazpena azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- 59.4 artikuluan (orain, 59.5) ezarritakoaren arabera egin zela, baina ez zuen iritzi hori justifikatzeko argudiorik ez arrazoirik eman.

Gogoetak



1. Eusko Legebiltzarrari 2002. urteaz egindako txostenean, erakunde honek gomendio orokor bat egin zuen, zera aztertzeko: trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zigor-prozeduretan, postazko jakinarazpenak behar bezala saiatuta egin direla ulertzeko, jakinarazpen horietan zein baldintza bete behar diren, interesduna etxean ez dagoenean¹. Gomendio horren edukiari lotzen gatzaizkio, kexa honen erreferentziatzko esparru orokorra denez.
2. Zigor-prozedura batean, izugarritzko garrantzia du jakinarazteko izapideak, bada, araudiak agindutako baldintza guztiak arduraz betez, ziurtatu egiten da interesdunak prozeduraren berri izango duela, eta, beraz, babesteko eskubidea erabili ahal izango duela.

Konstituzio Auzitegia askotan mintzatu da gai horren gainean. Horrela, zera adierazi zuen 13ko 1/1983 Epaian (RTC 1983\1):

“De todos los preceptos que las leyes procesales dedican a los actos de comunicación con las partes (notificaciones, citaciones, emplazamientos) y aun de los que se ocupan de los medios de impugnación dirigidos a remediar los vicios ‘in procedendo’, se advierte que el propósito del legislador es, ante todo, conferir a aquellas las garantías para la defensa de sus derechos e intereses, de modo que la notificación, citación o emplazamiento sirva a su objetivo de que, dando noticia suficiente del acto o resolución que la provoca, sirva para que el notificado, citado o emplazado pueda disponer lo conveniente para defender en el proceso los derechos o intereses cuestionados, por cuanto de faltar tal acto de comunicación o adolecer de nulidad equivalente a su falta, el interesado podría verse imposibilitado para ejercer los medios legales suficientes para su defensa.”

Edo, berrikiago, 2002ko urriaren 28ko Epaian (RTC 199\2002), honako hau azaldu du:

¹ EUSKADI. Ararteko. Gomendio orokorrak: Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiatuta egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean. EUSKADIIn. Ararteko. *Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena 2002*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2003. [Eskuragarri linean: www.ararteko.net]



“...el cumplimiento de los requisitos que las Leyes procesales exigen para practicar el emplazamiento, citación o notificación ofrecen relevancia constitucional y son garantía de que el emplazado, citado o notificado conocerá el acto o la resolución que le afecta y podrá, en consecuencia, ejercer adecuadamente su derecho de defensa.”

Horregatik, jurisprudentziak arreta berezia eskatzen du prozesuzko jakinarazpenak egiterakoan, izan ere, bere iritziz, prozedurazko legeek jakinarazpenak egiteko jartzen dituzten baldintzak ez dira baldintza formal hutsak, baizik eta funtsezko elementuak, bai babesik eza eragozteko, bai epaileen babes eraginkorra izateko eskubidea bermatzeko.

3. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- hauxe dio 59.2 artikuluan: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz saiatuko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.”*

Horren antzeko agindua ageri da abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 42. artikuluan. Dekretu horrek posta zerbitzuen prestazioa arautzen duen erregelamendua onartzen du.

Egintza jakin bat norberari zuzenean adieraztea da jakinarazpenaren berezko helburua; horregatik, bidezkoa da administrazioari bere arreta eta beharrezko baliabide guztiak erabil ditzan eskatzea, arrazoizko esparru batean helburu hori lor dadin.

Horrela, administrazioaren jarduera aztertzean, kontuan izan behar dira erabilitako baliabideak oro, eta, batez ere, baliabide horiek guztiek batera izan dezaketen birtualtasuna, interesdunak benetan egintzaren berri izateari dagokionez.

Araudiak berak jarduerazko gutxienezko betekizun batzuk ezartzen ditu norberari egindako jakinarazpena hobetzeko, interesdunaren jarrera babesteko metodo onena delakoan, eta, horrexegatik, betekizunok saihestezinak dira.



Esate baterako, bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez zegoelako lehen jakinarazpen-ahalegina burutu ez bada, bigarren jakinarazpen-ahalegina egin dela egiaztatatu behar da.

Era berean, jakinarazpen-ahaleginak ordu ezberdinetan egin behar direla aurreikusita dago. Jakinarazpenaren helburuari buruzko oharrek kontuan izanik, ezin da jakinarazpena burututzat jo orduen arteko aldea oso txikia baldin bada, hau da, orduak formalki ezberdinak izan arren, ikuspegi materialetik antzekoak badira. Halaxe ulertu zuen, adibidez, Errioxako Auzitegi Nagusiak 1998ko abenduaren 12ko Epaian (RJCA 1998\4679): interesdunari bere bizilekuan bi jakinarazpen-ahalegin egindako kasu batean, 10:22 eta 09:37 orduak ia berdinak direla adierazi zuen.

Bestalde, abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuak zenbait baldintza exijitzen ditu Posta Zerbitzuaren bidez egindako jakinarazpenetarako. Baldintza horien arabera, bi ahaleginak alferrikakoak izan badira, jakinarazpena postetxean gorde behar da, hilabeteko epean gehienez, eta hartzaileari jakinarazpena iritsi dela dioen ohar bat utzi behar zaio bizilekuko postontzian. Ohar horretan adierazi behar da zein bulegotan dagoen, noiz jaso dezakeen eta bigarren jakinarazpen-ahaleginean zer gertatu zen.

Auzitegi Gorenak jakinarazpen-ahaleginak aztertu ditu 1997ko abenduaren 12ko Epaian (RJ 1998\2264). Bere ustez, funtsezkoa da jakinarazpen-ahalegina bi aldiz egiteari buruzko froga, baita komunikazio hori iritsi dela ohartaraztea ere –dagokion postontzian edo kutxatilan oharra sartuz–, eta Posta Zerbitzuak du froga horren ardura. Gainera, Auzitegiaren iritziz, administrazioari jakinarazpena itzultzen badiote, iraungi delako, zera egin behar du, besteak beste: *“debe pedir e incorporar al expediente administrativo certificado del Servicio de Correos (...) en el que se certifique (...) día y hora en que se entregó el Aviso de Llegada [y] Noticia, en su caso, de que el destinatario o persona autorizada por él no se ha personado en la Oficina postal a recoger la carta”*. Horrela, administrazioak egintza horiek frogatu ditutenean soilik jo daiteke baliozkotzat iragarki bidezko jakinarazpena.

4. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, 59.5 artikuluan, ediktu bidez jakinarazteko aukera ematen du, baldin eta, norberari jakinarazten saiatu ondoren, jakinarazterik lortu ez bada.

Beraz, bide hori erabili ahal izateko, ezinbestekoa da aurreko jakinarazpen-ahalegina ohiko moduan egin izatea, eta araudiak ezarritako dituen formazko eta materiazko baldintza guztiak betetz. Horrela, alderdi horiek egiaztatzerik ez



balego, edo baldintzok behar bezala ez direla bete ondorioztatuko balitz, ez litzateke baliozkoa izango ediktu bidezko jakinarazpena erabiltzea.

5. Lehenbiziko espedientean ez zen salaketa interesdunari jakinarazteko bigarren ahaleginik egin, nahiz eta administrazioa horretara behartuta zegoen, lehen transkribatutako legezko xedapenaren indarrez. Jokaera hori argiro legez kanpokoa da, eta, azken batean, ezin dugu behar bezala egindakotzat jo jakinarazpen hori.

Lehenago adierazi dugunez, zertzelada horrek baliorik gabe uzten du ondoren egin zen ediktuzko jakinarazpena ere.

Edonola, zigor erabakia ere ez zitzaion legean ezarritakoaren arabera jakinarazi interesdunari, izan ere, legeak exijitzen du interesdunaren bizilekuan jakinarazpenaz arduratzen den pertsonak nor den adieraz dezala, baina, kasu honetan, sinadura ulergaitz bat eta NAN zenbaki bat bakarrik ageri dira. Datuok ez dira nahikoa, guk uste, legeak agindutakoa bete dela ulertzeko.

6. Bigarren espedienteari dagokionez, interesdunari jakinarazteko egin ziren bi ahaleginen artean 20 minutuko aldea baino ez dago. Gainera, inon ez da idatziz jasota agertzen hartzailearen postontzian arauzko abisua utzi zenik.

Aurreko puntuetan garatu ditugun argudioak kontuan izanik, gure aburuz, jakinarazpen-ahalegin horiek egiteko modua ezin da legezkotzat jo, eta, horren ondorioz, salaketaren ediktu bidezko jakinarazpena ere ez litzateke baliozkoa izango.

Espediente honetan ipinitako zigorra interesdunari jakinaraztearen ganean, alferrikakoa izan zela azpimarratu behar da, interesduna ez baitzuten ezagutzen jakinarazpena egiten saiatu ziren bizilekuan, nahiz eta hiru hilabete lehenago eta hilabete bat geroago guztiz ezaguna zen han, eta halaxe onartu du Posta eta Telegrafo Zerbitzuak berak, Trafiko zuzendariak eskatuta egin ziren ikerketen ondoren.

Diskordantzia horrek jakinarazpenak egiteko moduan arretarik eza erakusten du, eta hori ez dago bateratzerik jakinarazpenek zigor-prozeduretan bete behar duten zeregin garrantzitsuarekin, babesteko eskubidea benetan gauzatzeko tresnak dira-eta.

7. Gure iritzian, kexa eragin duten zigor-prozeduretan, jakinarazpenak egiteko moduan akatsak izan direlako ez du jakin interesdunak prozedura horiek



bideratzen ari zirela, eta ez du behar bezala erabiltzerik izan bere burua babesteko eskubidea.

Ildo horretan, salaketaren jakinarazpena irregularra izan zenez gero, nahitaez zalantzan jarri beharra dago zigor-prozedura osoa baliozkoa ote den, jakinarazpen hark ez baitzuen izan, antza, inolako birtualtasunik hasierako egintza gisa.

Gainera, bi zigor-erabakiei dagozkien jakinarazpen-akatsak gero bideratu zen premiamendu prozeduraren baliozkotasunean izango zuten eragina. Nolanahi ere, prozedura horrek ez luke behar bezalako oinarririk izango.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

9/2004 GOMENDIOA, apirilaren 19koa, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari egina

Baliorik gabe utz ditzala (...) zenbakiko prozeduretan (...) jaunari ipinitako zigorrak, beharrezko izapideak burutu ditzala horien ondoriozko premiamendu prozedurak ere baliogabetzeko, eta itzul ditzala horiengatik kobratutako dirukopuruak.